

Espte. Kodea : 2026T0060017

ALKATETZAREN DEKRETUA

IKUSIRIK Euskara Saileko teknikariaren proposamena, zeinaren bidez Oriartekide Guraso Elkartearekin 2026-2027 ikasturtean elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatzea proposatzen dela, Oriarte BHI ikastetxean ondoko programa hauek gauzatzeagatik emango zaion subentzioa arautuko duena:

– Ele-meleka DBH1, Ele-meleka DBH2, Ele-meleka DBH3, Ele-meleka DBH4, Elemeleka 1. Batxilerra, Ele-meleka 2. Batxilerra, Gazte eragileen batzordea DBH1-2, Gazte eragileen batzordea DBH3-4, Kidetzeak, Pertsonaia ezagunen bisitak, "Euskara gurean" murala.

Ikusirik Euskara Zerbitzuko arduradunaren 2026ko ekainaren 16ko txostena, Oriartekide Guraso elkartearekin Oriarte BHI ikastetxean 2026-2027 ikasturtean egitasmoak garatzeko dirulaguntza kudeatzeko hitzarmena sinatzeari buruzkoa, zeinaren bidez adierazten baita hitzarmen hori sinatzea egokia dela eta beharrezkoa den dokumentazioa zuzen dagoela.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzeko 7/1985 Lege apirilaren 2koak 21. Artikuluan ematen dizkidan atribuzioen bertutez.

EBATZI DUT:

LEHENENGOA. Zuzeneko emakidako hitzarmena formalizatzea, hura emateko, ordaintzeko eta justifikatzeko baldintzak arautzen dituen.

BIGARRENA. ORIARTEKIDE GURASO ELKARTEARI (IFK: G20577201) 29.246,00 €-ko zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea, 1.6000.48101.335.10 aurrekontu-aplikazioaren kontura. Dirulaguntzaren %60 hitzarmena sinatutakoan ordainduko zaio, eta gainerako %40, justifikazioa egindakoan.

HIRUGARRENA. Euskara Zerbitzuko arduradunak edo dagokion teknikariak ardurapeko adierazpen bat egingo du zeinetan baieztatuko baitu 2024/2025 eta 2025/2026 ikasturteetako dirulaguntzak behar bezala justifikatuta daudela eta ez dagoela inolako diru-itzulketarik egiteke.

LAUGARRENA. Hitzarmena udalaren webgunean (Gardentasuna) eta BDNSn argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 8 c) artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55 h) artikulua eta DLOren 18.3 artikulua betetzeko.

BOSGARRENA. Onuradunari jakinaraztea.

SEIGARRENA. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean aurka egin ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, egokitatz jotzen den beste edozein gorabehera.

Hala ebazten eta sinatzen dut, Lasarte-Oria sinadura digitalaren datan.

